

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 111/2021 FORU DEKRETUA, uztalaren 27koa, zeinaren bidez sortzen eta erregulatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzorde Zuzendaritza eta Batzordea.**

Foru Dekretu honen xedea zera da: Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea sortzea, haren izaera nahiz araubide juridikoa zehaztea, osaera definitzea, funtzioak garatzea, eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezartzea.

2019ko otsailaren 21ean, Eusko Legebiltzarrak 4/2019 Legea onartu zuen, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, zeinak erkidegoaren konpromiso energetikoak eguneratzen dituen eta konpromisooi estaldura emateko behar diren neurriak definitzen. Lege hori Euskal Autonomia Erkidegoak ingurumenaren arloan hartutako konpromisoen ildotik sortu zen, eta administrazio publikoen eremuko jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzen ditu, oinarritzat harturik arlo publikoan nahiz pribatuan efizientzia energetikorako eta energia-aurrezpeneko neurriak bultzatzea eta energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea.

Hala, bada, legearen 2. artikulua honela definitzen du bere aplikazio-eremu subjektiboa:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne.
- Lurralde historikoetako administrazioak, haien mendeko edo beraiei lotutako erakundeak barne.
- Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean definitzen diren moduan.
- Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore pribatua.

Ohartarazten da ezen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legeak zuzenean ukitzen dutela Bizkaiko Foru Aldundia. Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak behar diren jarduketa guztiak egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako helburuak eta betebeharrak betetzeko.

Hala, bada, hainbat eginbide ditu, eta, besteak beste, jasangarritasun energetikoaren batzorde bat sortu behar du, aintzat harturik Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 9. artikuluan ezartzen dena, non esaten den: «lege honek lortu nahi dituen helburuak bete daitezzen, administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, jasangarritasun energetikoaren batzorde bana edo izan daitezkeen eta antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek. Lurralde historikoetako administrazioek eta udalerriek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean sortu behar dituzte beren batzordeak».

Hori betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea sortzen du foru-dekretu honek, bai eta haren Zuzendaritza Batzordea ere; batzorde horren osaera definitzen du, eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezartzen.



Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea arautzen duen foru-dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitakoaren mende dago.

Era berean, xedapen hau egiteko prozeduran Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako arauak bete dira, eta sailaren txosten juridikoa, kontrol ekonomikoari buruzkoa, legezketasunari buruzkoa eta generoaren eraginaren aurreiazko ebaluazioari buruzko txostena egin dira. Horrez gainera, erantzuten dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen diren erregulazio onaren printzipioei.

Ez da beharrezkoa xedapen orokorretarako ezarritako prozeduraren aurreiazko kontsulta publikoari eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideari buruzko baldintza betetzea, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 9. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, arau honen bi alderdiri jarraikiz. Batetik, antolaketa-izaerako foru-dekretu bat delako, eta, bestetik, goragoko araudi juridiko bat garatzen duelako.

Foru-dekretu hau emateko eskumena araudi honetan aurreikusita dago: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan, foru-arau horren 39.k) artikulua foru-diputatuei ematen dizkien ahalmenak kontuan hartuta. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean aurreikusitako jasangarritasun energetikoari buruzko helburuak eta betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak egiten esku hartuko duten sailtako diputatuei dagokie bai dekretu hau emateko eta bai berau Gobernu Kontseiluari aurkezteko eskumena, hark onar dezan.

Horren ondorioz, ekimena bideratu dutelarik Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko diputatuak, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak eta Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko diputatuak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuak eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko diputatuak, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DA:

1. artikulua. — Xedea

Foru Dekretu honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea sortzea, batzordearen osaera definitzea eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezartzea.

2. artikulua. — Izaera

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea kide anitzeko organo gisa eratzen da, Bizkaiko Foru Aldundiko sailak eta hari loturiko zein haren menpeko entitateak koordinatzeko, eta denen artean egin ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako helburuak eta betebeharrak betetzeko behar diren jarduketa guztiak. Egiteko horretan inplikaturat jotzen dira honako sail hauek:

- a) Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitatea.
- b) Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitatea.
- c) Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitatea.
- d) Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitatea.
- e) Ogasun eta Finantza Saila edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitatea.



f) Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari edo ingurumenaren arloan eskumena duen unitateari atxikita dago.

3. Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak zaindu beharko du betetzen direla Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako jasangarritasun energetikoaren betebeharrak, betebeharrak Bizkaiko Foru Aldundiari eta hari lotutako edo haren mende-ko erakundeei eragiten dietenean.

4. Batzorde horrek, beharrezkoa izanez gero, izango du baliabide ekonomikorik adituen aholkularitza jasotzeko, beharrezkotzat joz gero; baliabide horiek, hala bada-gokio, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren edo ingurumen-arloan eskumena duen unitatearen aurrekontuan jasoko dira.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun Energetikoaren Batzordeak Batzorde Zuzendariak ezarritako jarraibideak beteko ditu. Organo goren horren eginkizuna izango da, besteak beste, Iraunkortasun Energetikoaren Batzordearen esparru operatiboaren barruan jarraitu beharreko estrategia definitzea, ezarririk dauden helburuak betetze aldera.

6. Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:

- a) Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitateko zuzendari nagusi bat.
- b) Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitateko zuzendari nagusi bat.
- c) Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitateko zuzendari nagusi bat.
- d) Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saileko edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitateko zuzendari nagusi bat.
- e) Ogasun eta Finantza Saileko edo haren eskumenak bere gain hartzen dituen unitateko zuzendari nagusi bat.
- f) Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea zuzendari nagusi bat.

Beharrezkoa izanez gero, beste zuzendaritza batzuek ere parte har dezakete, Zuzendaritza Batzordeak eskatuta.

7. Batzorde Zuzendariaren lehendakaritza eta lehendakariordetza Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun Energetikoaren Batzordeko lehendakari eta lehendakariorde berberak izango dira.

3. artikulua. — *Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eginkizunak*

1. Honako hauek dira Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eginkizunak:

- a) Energia-jarduketako plan orokorra onartzea proposatzea.
- b) Eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa onestea proposatzea.
- c) Langileak energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko teknikei buruzko prestakuntza-plan bat diseinatu eta proposatzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea betez egindako jardueren memoria egitea.
- e) Aldian-aldian, Bizkaiko Foru Aldundiaren energia-jarduerako planaren egoeraren eta garapenaren berri ematea Batzorde Zuzendariari.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea aplikatuz, bere eskumenen esparruan esleitzen zaizkion beste eginkizun batzuk.

**4. artikulua.—*Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen osaera eta kide-kopurua***

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea teknikoa izango da nagusiki, eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioez osatua egongo da; salbuespena izango dira batzordeburua eta batzordeburordea, haiek zuzendari nagusiak izango dira eta. Batzordekideak, berriz, foru-dekretu honen 2. artikuluan aipatutako sail edo unitate bakoitzak zehazten dituen langileak izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako betebeharren esparruari buruzko ezagutzak izango dituztenak.

2. Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea osatuko duten kideak izendatzean, bermatu beharko da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Bilerak egitean batzordea baliozko moduan eratua izateko nahiz eztabaidan jardun eta erabakiak hartzeko, batzordeburuak eta idazkariak bileran egon behar dute, presentzialki zein urrunetik, edo, bestela, haien ordezkoez, bai eta, gutxienez, gainerako kideen erdiak.

4. Tratatzen diren gaiak bereziak direla-eta adituak batzorderatzea behar denean, batzordeburuak gonbida ditzake, bere kabuz zein batzordekideren baten eskariz, bileran azal dezan galdetzen zaizkion kontuei buruzko oharrak edo analisiak.

5. artikulua.—*Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen batzordeburua*

1. Batzorde Zuzendariaren lehendakaria Foru Aldundiko goi-kargu bat izango da, zuzendari nagusi mailakoa. Foru Aldundiak izendatuko ditu, lau urterako, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Departamentuko titularrak edo ingurumenaren arloan eskumena duen unitateak proposatuta.

2. Batzordeburuaren eginkizunak dira administrazio publikoetako kide anitzeko organoentzat oro har jasotzen direnak, eta, zehazki, honako hauek:

- a) Zaintzea betetzen direla Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiari eragiten dioten jasangarritasun energetikoaren arloko betebeharrak.
- b) Batzordearen ohiko ordezkaria izatea.

3. Bileretarako deia egin dadila erabakitzea, eta bileretan buru izatea; gai-zerrenda zehaztea, eta zerrendan ez dauden beste gai batzuk proposatzea, hala egin behar dela justifikatzen duten presazko arrazoiak egonez gero, bai eta berdinketa dakarten bozketak ebaztea ere, kalitateko botoaren bidez.

4. Laguntza eskatzea administrazio-lanak edo lan teknikoak egiteko.

5. Batzordeburu izateak berezko dituen gainerako funtzio guztiak, edo batzordeak berak esleitzen dizkionak.

Artikulu honen 5.2. zenbakian jasotako ahalmenak eskuordetu daitezke, a) letran ezarritakoa izan ezik.

Kargua hutsik dagoenean, batzordeburua kanpoan edo gaixorik denean edo legezko beste kausaren batengatik, batzordeburordeak ordeztuko du hura, edo hark izendatzen duen pertsonak.

6. artikulua.—*Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen batzordeburordea*

1. Batzordeko lehendakariordea Foru Aldundiko goi-kargudun bat izango da, zuzendari nagusi mailakoa.

Foru Aldundiak izendatuko ditu, lau urterako, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuak edo administrazio publikoaren arloan eskumena duen sailekoak.



Hona batzordeburuordearen funtzioak:

- a) Eskatzen zaionean, batzordeburua ordezkatzeta eta haren izenean jardutea.
- b) Batzordeburuari laguntzea zeregin orokorretan, batzordeak egoki funtziona dezan.
- c) Batzordeburuak eskuordetzen dizkionak.

2. Lehendakariordearen kargua hutsik badago, kanpoan, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, lehendakariak izendatutako pertsonak ordezkatu du lehendakariordetza.

7. artikulua. — *Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen batzordekideak*

1. Batzordekideak Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak izango dira. Foru Aldundiak izendatuko ditu, lau urterako, eta horretarako proposamena dagokion foru-diputatuak nahiz kabineteburuak egingo du, kontuan izanik zer sail eta kabinete ukitzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusten diren eta, hain zuzen, Bizkaiko Foru Aldundiari eragiten dioten jasangarritasun energetikoaren arloko eginbeharrak bete beharrak.

2. Kideen eginkizunak dira administrazio publikoetako kide anitzeko organoentzat oro har jasotzen direnak, eta, zehazki, honako hauek:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezartzen diren eta Bizkaiko Foru Aldundiari eragiten dioten helburuak lortzeko neurrien jarraipena proposatzea eta egitea, nor bere sailaren eskumen-eremuan.
- b) Deitzen dituzten bileretara joatea, eztabaida eta proposamenetan parte hartzea, eta aztertutako gaien buruzko galde-ekariak egitea.
- c) Botoa emateko eskubidea erabiltzea, haien boto partikularra formulatzea, bai eta botoaren zentzua eta arrazoiak adieraztea.

3. Kargua hutsik dagoenean, batzordekidea kanpoan edo gaixorik denean edo legezko beste kausaren batengatik, haren sail, kabinete edo unitate berean izendatzen den pertsonak ordeztuko du.

8. artikulua. — *Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen idazkaria*

1. Batzordeburuaren foru-saileko funtzionario bat izango da batzordeko idazkari, dagokion foru-diputatuak izendatua, eta batzordeko kideei aholku ematen jardungo du, ahotsa bai baina botorik ez duela. Batzordekide batek ordeztuz gero kidea ez den idazkaria, hark kide gisa dituen eskubide guztiak izango ditu.

2. Kargua hutsik dagoenean, idazkaria kanpoan edo gaixorik denean edo legezko beste kausaren batengatik, batzordeburu denaren saileko edo unitateko funtzionarioak ordeztuko du hura, eta dagokion foru-diputatuak izendatuko du.

3. Eginkizun hauek izango ditu batzordeko idazkariak:

- a) Bilkuretara joatea ahotsa bai baina botorik ez duela, eta, batzordeko kide bat bada idazkari, bai ahotsa bai botoa dituela.
- b) Batzordeburuak aginduta, bileretarako deialdia egitea eta kideei bidaltzea.
- c) Batzordekideen komunikazioak jasotzea: nahiz jakinarazpenak, datu-eskaerak eta zuzenketak, nahiz beste edozein idazki-mota berak jakitun egon behar duena.
- d) Gaiak bideratzea, eta bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.
- e) Onartutako kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.
- f) Idazkari izateak berez dakartzkion beste guztiak.

9. artikulua. — *Antolaketa*

1. Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araubidea foru-dekretu honetan aurreikusitakoa izango da, eta, hala badagokio, batzordeak berak onesten dituen funtzionamendurako barne-arauetan ezarritakoa.



2. Bilkura-lekuan egonda zein urrutitik parte hartuta eratu ahal izango da batzordea, eta hala deitu eta egin ahal izango ditu bilkurak, baita erabakiak hartu eta aktak bidali ere. Erabakiak botoen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, batzordeburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

3. Batzordearen bilerak, ahal dela, presentzialak izango dira. Hala ere, bilerak urrutetik ere egin ahal izango dira, baldin eta baliabide elektronikoen bitartez behar bezala egin daitezkeela bermatzen bada, gai horren inguruan Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17. artikuluan ezarritakoarekin bat.

10. artikulua. — *Bileren deialdia*

1. Bilkuretarako deialdia batzordeburuak erabakiko du, eta idazkariak batzordeburuordeari eta batzordekideei bidaliko die. Deialdiarekin batera, gai-zerrenda eta bileran landuko den dokumentazioa bidaliko dira. Bitarteko elektronikoz egingo da bilkura-deialdi bakoitza.

2. Gutxienez ere berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin egin beharko da deialdia. Hala ere, premiazko zat kalifikatzen diren gaiak eta kontsultak daudenean, ahalik eta azkarren egingo dira.

3. Lau hilean behin egingo ditu ohiko bilerak batzordeak; ezohiko bilerak, berriz, batzordeburuak erabakitzen duenean egingo dira, berak deiturik edo batzordekideen erdiak gutxienez eskatzen dutenean.

11. artikulua. — *Erabakiak hartzea*

1. Ezingo da eztabaidatu ez erabaki gai-zerrendan ageri ez den gairik, salbu eta batzordekide guztiak bilera daudenean eta gaia urgentziazkoa dela adierazten denean botoen gehiengoz.

2. Botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, eta batzordeburuak ebatziko ditu berdinketak bere kalitatezko botoarekin.

12. artikulua. — *Akta*

1. Idazkaritzak bilera bakoitzaren akta egingo du, eta labur adieraziko ditu: bertaratutakoak, bilerako gai-zerrenda, bilera non eta noiz egin den, eztabaidatutako puntu nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

2. Batzordekideek eskatuz gero, aktan jaso behar da hartutako erabakiaren aurkako botoa, abstentzioa eta hura justifikatzen duten arrazoiak, bai eta erabakiaren aldeko botoa ere.

3. Batzordekideei eta Zuzendaritza Batzordeko kideei ere bidaliko zaie akta, jakitun egin daitezen, eta bileran bertan edo hurrengoan onartua izan ahalko da.

13. artikulua. — *Lantaldeak*

1. Batzordeak aztertu beharreko gaiak edo egin beharreko zereginak konplexuak direnean edo teknikoak, batzordeburuak batzorde teknikoak edo lantaldeak osatu ahalko ditu, gai jakin batzuetarako, eta berak erabakiko du zer egitura eta osaera izango duten eta zenbat denborarako egingo diren.

14. artikulua. — *Araubide juridikoa*

Dekretu honetan aurreikusten ez den gutzirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legean kide anitzeko organoetarako arautzen dena aplikatuko da.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaiaerko Lehen Xedapena

Baimena ematen zaio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko titularrari edo, bestela, ingurumenaren arloan eskumena duen titularrari foru-dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan.



Amaierako Bigarren Xedapena

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Bilbon, 2021eko uztailaren 27an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua,
AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA